


Adimen artifizial sortzaileak sinesmenak eralda ditzake

Adimen artifizial sortzaileko sistemek pertsonen sinesmenak eralda ditzakete, informazio faltsua eta alborapenak transmitituz. ChatGPT eta antzeko sistemek horretarako ahalmen handia dutela ohartarazi dute, [Science aldizkarian argitaratu duten analisi batean](#).



ARG.: Cottonbro studio/Pexels

Ikertzaileek nabarmendu dute [adimen artifizial sortzailearen gaitasunak](#) puztu egin direla, eta askotan iradoki dela giza gaitasunak gainditzen dituztela. Horri gehitu behar zaio sistema horiek segurtasun handia transmititzen dutela ematen dituzten erantzunetan. Eta gizakiak berezko joera du aditua dirudien eta segurtasuna transmititzen duen agente batek emandako informazioa azkarrago eta gehiago barneratzeko. Bada, kontuan hartuta adimen artifizialeko sistemek informazio faltsua eta isuriz betea ematen dutela, informazio-mota hori jendearen sinesmenetan txertatzeko eta hedatzeko arrisku handia ikusten dute ikertzaileek.

Gainera, ohartarazi dute behin informazio hori barneratuta, eta sinesmenetan txertatuta, zaila izan litekeela hori aldatzea. Horregatik, azpimarratu dute oraindik aukera dagoela gai horren inguruko diziplina arteko azterketak egiteko eguneroko beste teknologia batzuetan sakonago txertatu aurretik. ●

Hatzez grabatutako horma-irudi batzuk neandertalek eginak direla baieztatu dute

Neandertalek sortutako grabatu zaharrenak datatu dituzte La Roche-Cotard haitzuloan (Erdialdea-Loira harana). Hain zuzen, baieztatu dute gutxienez 57.000 urte dituztela eta litekeena dela 75.000 urte ere izatea.

Askotan eztabaidatu da artistikotzat edo sinbolikotzat jotzen diren halako adierazpenen egiletzari buruz, batzuek ukatu egiten baitute neandertalak horretarako gai izango zirenik. Alabaina, La Roche-Cotarden haitzuloko grabatuen egileak ezin ziren sapiensak izan, artean ez baitziren eremu hartara iritsi. Gainera, haitzuloaren barruko harrizko erre-mintak mousteriarrak dira, neandertalen kultura batekoak.



Ezkerrean, zirkuluaren panela deitutakoa; eta eskuinean, berriz, uhinen panela. ARG.: Jean-Claude Marquet/CC-BY 4.0.

Irudiak hatzez eginda daude, eta ez dira figuratiboak, baina haien forma, espazioa eta kokapena aintzat hartuta, ikertzaileek ondorioztatu dute nahita sortutakoak direla. Ikertzaileek aitortu dute ez dakitela zein den arrasto horien esanahia, baina munduko beste leku batzuetan, garaitsu berean, sapiensak antzeko adierazpenak egin zituzten. Horrek erakusten du neandertalen portaera eta jarduerak sapiensena bezain konplexuak eta askotarikoak izan zirela. ●